

EDITORIALA

ELAk ez du bere memoria zaindu. Ez da harro egoteko kontua. Ez du justifikaziorik. Nahiz eta baduen bere azalpena. Azken hamarkadetan sindikatuaren lehentasunak beste batzuk izan dira: erakundea finkatu, kide kopurua handitu, lan munduan eraginkorrak izan, sindikatuaren zerbitzuak sustatu eta indartu. Hau da azalpena. Ez du deskuidua justifikatzen, baina errealitatea da.

Genuen zorraren jakitun, eta XXI. Mendean ondo sartuak jada, Manu Robles-Arangiz fundaziotik, Joxeangel Ulazia eta Dani Gómez hortik zehar barreiatuak zegoen gure artxibo historikoko materiala ordenatzen joan ziren. Adituen laguntzaz lehen fase batean, eta beraien kabuz ordutik aurrera, katalogazio, artxibatze eta digitalizazio lanean murgildu ziren, oinarrikoena sailkatuz. Prozesu honek hasieratik genuen susmoa baieztatu zigan: erbesteratze, jazarpen eta klandestinitate urte luzeen ondoren ñimiñoa zen salbatu ahal izan zen dokumentazio kopurua.

Material hau guztiaren ordenatze horrekin, lana amaitutzat joenez gero. Baina, zorionez, erakundeetan, batzuetan, zaindariak azaltzen dira: erabakitako lehentasunetik baztertuta gelditzen diren gai txiki edo handiez enkargatzen diren pertsonak. Joxeangel zaindari horietako bat izan da. Informazioa ordenatzen eta berreskuratzen joan da, pazientzia eta dedikazio handiarekin, gure artxiboan zegoena eta beste funts batzuetan aurkitzen joan dena.

Eta lan horrek bere emaitza eman du, berriki aurkeztu den *No pudieron romper el cerco. Crímenes y represión franquista contra ELA* liburua. Badugu udara honetarako irakurra.

ELA y LAB exigen la dimisión del consejero de Trabajo por proponer en la mesa del diálogo social la generalización de acuerdos con la minoría sindical

EL GOBIERNO VASCO PRETENDE SABOTEAR LAS MAYORÍAS SINDICALES

El Gobierno Vasco ni siquiera se molesta ya en disimular su talante antidemocrático y sus deseos de eliminar el sindicalismo reivindicativo, sea como sea. Al ejecutivo le sobran y estorban unos sindicatos que han decidido plantar cara a sus políticas neoliberales y a su simbiosis con los intereses patronales. El resultado de las elecciones sindicales le importa un bledo, la voluntad de la clase trabajadora vasca le importa un bledo. Sólo así se explica la propuesta elaborada por el Gobierno Vasco y dirigida a la Mesa de Diálogo Social –de la que forman parte el propio ejecutivo, Confesbask, CCOO y UGT– en la que proponen la generalización de acuerdos con la minoría sindical.

En rueda de prensa celebrada el 14 de julio, **Adolfo Muñoz Txiki**, secretario general de ELA y **Ainhoa Etxaide**, de LAB, denunciaron públicamente el citado documento y, ante la gravedad

del ataque, exigieron la dimisión del actual Consejero de Trabajo, Angel Toña. (Abajo se recoge la declaración conjunta elaborada por ELA y LAB)

Ante la pregunta formulada por un periodista de si esta respuesta conjunta a los intentos del Gobierno Vasco de quitarse de en medio a ELA y LAB podría ser el punto de partida de una unidad de acción mayor, el secretario general de ELA aseguro que “¡ojalá!”, aunque matizó que “hay desencuentros y voluntad de superarlos”. Ainhoa Etxaide, por su parte, añadió que “además, hay una patronal que nos une”.

Ambos dirigentes sindicales rechazaron valorar la actitud de UGT y CCOO en la negociación colectiva porque “en estos momentos nuestra denuncia no es intersindical. La gravedad del asunto es que el Gobierno Vasco dé cobertura y legitimidad a los acuerdos en minoría haciendo suyos los deseos de Confe-



bask y despreciando la decisión de los y las trabajadores vascos de que ELA y LAB sean sus interlocutores. Porque una cosa es que la patronal quiera quitarnos de en medio y otra, cualitativamente muy distinta, que el poder político se preste a ello, profundizando en el carácter antidemocrático de las relaciones laborales en este país”.

DECLARACIÓN CONJUNTA DE ELA Y LAB

ELA y LAB hemos tenido conocimiento -por vía no oficial- de una propuesta elaborada por el Gobierno Vasco y dirigida a la Mesa de Diálogo Social de la que forman parte el propio Gobierno, Confesbask, CCOO y UGT. Del contenido de ese texto extraemos las siguientes consideraciones:

1. En el texto que se envía a la Mesa de Diálogo Social se plantea como alternativa a las reglas de juego democráticas en la negociación colectiva la generalización de acuerdos con la minoría sindical. Se llega a decir que “las circunstancias que actualmente rodean a la negociación colectiva en Euskadi están impidiendo en muchos casos la suscripción de convenios de eficacia general... lo que en ocasiones puede constituir, en opinión de los firmantes del presente acuerdo, una perversión de la propia negociación sectorial”. “Ante tales circunstancias... puede resultar adecuado... suscribir convenios de eficacia limitada...”.

2. Las “circunstancias” a las que se refieren no son otras que la existencia de una mayoría sindical comprometida con los derechos laborales y sociales y que no está dispuesta a aceptar las reformas laborales y la aplicación que de las mismas desea Confesbask. Una mayoría que representa al 59,20% frente a una minoría que supone el 29,74%. El Gobierno con esta actuación manifiesta su voluntad de rechazar la representación sindical que eligen los y las trabajadores vascos de forma democrática.

3. ELA y LAB quieren recordar que esta iniciativa es continuidad del intento por parte de Confesbask de eliminar la

condición de sindicatos a ELA y LAB; un intento que no prosperó pero que fue útil para demostrar qué clase de patronal tenemos. El Gobierno Vasco, cuando tuvo conocimiento de aquella voluntad de la patronal, mantuvo a Confesbask en la denominada Mesa de Diálogo Social como si nada hubiera sucedido.

4. A nadie se le escapa que la pretensión que formula el Gobierno colocaría a la patronal en una posición de máxima ventaja en la negociación colectiva para, despreciando las mayorías representativas, elegir como interlocutor para cerrar acuerdos al más dócil, cómodo y barato y así llevar adelante sus objetivos que no son otros que el empobrecimiento de la clase trabajadora.

5. El marco de encuentro del Gobierno, Confesbask y CCOO y UGT es incompatible con el Marco Vasco de Relaciones Laborales y Protección Social que ELA y LAB defendemos; lo es porque desprecia tanto los contenidos reivindicativos que mejorarían las condiciones de vida y trabajo de la clase trabajadora vasca, como por la vulneración de las reglas de juego democráticas. No hay Marco Vasco sin contenido social y sin reglas de juego democráticas.

6. ELA y LAB denuncian al Gobierno Vasco por tomar partido de forma descarada a favor de los intereses de la patronal y despreciar la decisión de los y las trabajadores vascos.

Por todo lo anterior y ante la gravedad de la propuesta del Gobierno ELA y LAB solicitamos la dimisión del Consejero Sr. Toña.

1.200
EUROTIK
GORA

ELA participará los días 23, 24 y 25 de septiembre en los III Encuentros Ecosocialistas Internacionales que se celebrarán en Bilbao

“HAY QUE CONSTRUIR ALTERNATIVAS ANTE ESTA EMERGENCIA ECOLÓGICA Y SOCIAL”



El 13 de julio se presentó la tercera edición de los Encuentros Ecosocialistas Internacionales que se celebrarán los días 23, 24 y 25 de septiembre en Bilbao. ELA –junto a diferentes organizaciones sindicales, sociales y políticas de Euskal Herria– participará en estas jornadas que cuentan con el respaldo de un gran número de prestigiosos expertos y militantes de todo el mundo.

En la presentación de estas jornadas participaron Adolfo Muñoz Txiki, secretario general, y Mikel Noval, responsable de política social. Ambos destacaron la importancia de este tipo de iniciativas. “Es evidente que nos encontramos ante una situación de urgencia ecológica y de emergencia social ante la cual es imprescindible desarrollar alternativas. Miras la realidad y no puede ser más desgarradora: las políticas neoliberales están aumentando las diferencias sociales, la pobreza y la marginación social, además de llevar al planeta a una situación de colapso y destrucción. Es necesario un cambio del sistema para recuperar el equilibrio entre las personas y el medio ambiente y apostar por el empleo verde”.

Tras los encuentros que tuvieron lugar en Ginebra en 2014 y en Madrid en el 2015, este año la cita es en Bilbao. “Nos quieren hacer creer que no hay alternativa a su sistema económico y político, pero en los últimos años cientos de experiencias, proyectos y alternativas han surgido por todo el mundo. El año pasado lo demostramos en Euskal Herria con la iniciativa Alternatiben Herria, y este año lo demostraremos con estos encuentros internacionales”.

Más información sobre estas jornadas: <http://alterecosoc.org>

URGENTZIA EKOLOGIKOA ETA LARRIALDI SOZIALA: ERONKA EKOSIZIALEN AURREAN ALTERNATIBAK ERAIKIZ

Humanitatea bidegurutzan dago: edo sistema ekonomiko eta politikoa aldatzen dugu edo hondamendira goaz. Zaintza, ekologia eta gizarte arloko krisialdi latza pairatzen ari gara, bere adierazpen nabarmena aldaketa klimatikoa izanik. Ildo horretan, larriak ere badira bioaniztasunaren galera, baliabide naturalen agortzea eta baso eta oihanen suntsipena. Interkonektaturik dauden krisi multzo baten aurrean gauden, humanitatearentzat eta, oro har, izaki bizidunenentzat orain arte ezagutu ez den mehatxua dakarrena. Horretaz gain, aberastasuna geroz eta esku gutxiagotan pilatzeak, desberdintasun ekonomiko areagotzen duen banaketa geroz eta injustuagoa dakar, gure gizarte eta herrietan bizimodu duina eragotziz.

Hondamendiaren sustraian, etenik gabe metatzearen dinamika hedakorrean, kontsumismoan eta merkantzen fetitxismoan oinarritzen den ekoizpen, birsorkuntza, banaketa eta kontsumo sistema dago, kapitalismo heteropatriarkala. Sistema horrek desberdintasunen hazkundera, injustizia soziala, pobrezia eta bazterketa dakar. Logika hedakor hori ez da naturalen eta gizakiaren babesarekin bateragarria. Mugarik gabeko hazkundera, bizitza humanoa sostengatzen duten oinarri materialekin guztiz kontrajarria da. Norabidea aldatzen ez badugu, gero eta maiztasun handiagoarekin jasango ditugu hondamendi ekologikoak. Horiek guztiek, hildakoak, sufrimendua eta humanitatearen multzo geroz eta handiagoen desplazamenduak eragingo dituzte. Baliabide natural geroz eta urriagoak kontrolatu asmoz pizten diren gerrak ugarituko dira, eta herrien kontrol eta militarizazioan sakonduko da. Kapitalismoa, edozein modutara hazteko eta mozkinaren logika horrekin, humanitatea ekosuntsipenera bideratzen ari da. Kapitalismoa suntsipen handiko arma bat da. Orainaldia lapurtzen ari zaigu, eta gaur egungo eta hurrengo belaunaldien etorkizuna eragotzen ari da.

Deialdi hau sinatzen dugunok, krisiari sistema kapi-

talistak emandako erantzunak (kapitalismo berdea, garapen iraunkorra, karbonoaren merkaturia, energia nuklearra, TISA edo TTIP tankerako komertzio askeko hitzarmenak, hirigune handien mesederako, lurraldearen (des)ordenamendua, lurra esku gutxitan pilatzea, nekazaritza industrial, azpiegitura erraldoi suntsitzailerak, gehiegizko erazketak, eta abar) konponbide faltsuak direla uste dugu, azken finean, planetaren suntsipenaz baliatzen diren negozio eredu berriak baitira.

Sistema politiko eta ekonomikoari alternatibarik ez dagoela sinestarazi nahi digute, baina azken urteetan, ehunka esperientzia, proiektu eta alternatiba sortu dira munduan zehar. AEBn, Keystone XL Ubidearen aurkako mobilizazioak, Parisko bilkuraren (COP 21) testuinguruan eginak, TTIParen kontrako mugimendua edo justizia klimatikoa aldarrikatzen duena alternatiba honetan sinisteko itxaropena dira. Alternatiba dinamikaren esperientziak ere (Euskal Herrian eta Frantziaren) horren lekuko dira. Hein berean, Afrika, Asia eta Hego Amerikan garatzen ari diren eraldaketa ekonomiko eta sozio-politikoak. Horiek, neurri handi baten, Bizitza Onaren eta gizakiaren eta naturaren arteko orekaren paradigmatan oinarritzen dira.

Ekintzaile belaunaldi berri bat eta erresistentzia forma desberdinak jaiotzen ari dira. Euskal Herrian ere esperientzia eta proiektu alternatiboak dauzkagu, baina arau kapitalista indartzen duten salbuespenak bihur ez daitezten, kontzientzia ekosozialista sortu behar dugu eta benetako eraldaketa lortu asmoz indarrak metatu behar ditugu. Herri erakunde eta botere ekonomikoaren arteko harreman bihurriekin bukatu behar dugu, beste eredu instituzional bat indarrean jarriz, herritarren ongizatea lehenetsiko duena, eta merkatu eta espekulatuzaileen aurretik, interes kolektiboak hobetsiko dituen, lanak lehentasuna izan dezan kapitalaren aurrean. Garaia da, herriek euren burujabetza indarrean jarriz gaur egun-

go egoera aldatzearen ardura har dezaten. Emari ekosozialista eta feminista sortzeko garaia, suntsipen aroa aldatuko duena.

Guk, Euskal Herriko, Estatu Espainiarreko, Suitzako eta Europako beste herrialde batzuetako mugimendu sozial, sindikatu eta erakunde politiko desberdinetako pertsonok, 2016ko irailaren 23tik 25era Bilbon (Euskal Herria) izango diren Nazioarteko III. Topaketa Ekosozialistetara gonbidatzen zaituztegu. Euskal Herriko III Topaketa hauek, Genevan 2014ko urtarrilean I. Topaketen eta Madrilan, 2015eko ekainean izan ziren II. Topaketen jarraipena dira.

Nazioarteko deialdi honekin bat egitera gonbidatzen zaituztegu zuen erakundeetako ordezkari edo norbanako gisa, berau zabal dezazuen eta eztabaidetan aktiboki parte hartzera animatuz.

Eztabaidarako 2 ardatz proposatzen ditugu:

- Urgentzia ekologikoaren eta larritasun sozialaren aurrean trantsizio ekosozialistak
- Troika ala Europako herriak: demokrazia, burujabetza eta justizia soziala

Sistema kapitalistaren eraldaketa sakona ardatz duen herritarren gehiengoak babestu eta bere gain har ditzan, gure lana koordinatu eta mobilizazio eta lan amankomunak programatu behar ditugu. Beste batzuen artean, COP-21 delakoaren ondorengo eta Europarako B Planaren ekimenetatik eratorritako mobilizazioen agendetan koordinatu eta bertan txertatu nahi dugu geure burua.

Gure proiektu ekosozialistan, eta beraz antikapitalistan, jendarte parekide, iraunkor eta antipatriarkal bateranzko norabidean lerratu nahi duten pertsona eta mugimendu orok du lekua.

Bilbon elkar ikusiko dugu.

Joxeangel Ulazia Beristain, 'No pudieron romper el cerco. Crímenes y represión franquista contra ELA' liburuaren autorea

"MILAKA PERTSONAK ERREPRESIO FRANKISTA JASAN BEHAR IZAN ZUTEN ELAKIDE IZATEAGATIK"



Ezker eskuin, Xabi Anza, Joxeangel Ulazia eta Josu Chueca, 'No pudieron romper el cerco. Crímenes y represión franquista contra ELA' liburuaren aurkezpenean

Uztailaren 18an liburu baten aurkezpena egin zen Donostian: *No pudieron romper el cerco. Crímenes y represión franquista contra ELA*, gure lankide Joxeangel Ulazia Beristainek (Mutriku, 1957) idatzia. Ulazia Bartzelonako Bellaterra Unibertsitate Autonomoan lizentziatu zen Historia Moderno eta Garaikidean, eta sindikalismoaren bide-tik Debako Itziariko Ama ikastolan abiatu zen, non lehenengo, irakasle, eta gero, zuzendari izan zen. ELAko ordezkari izatek sindikatuaren egiturari sartzera aldatu zen 1989. urtean, Irakaskuntzaren Federazioko kide gisa. Hortik Deba Barreneko eskualde-arduraduna izatera aldatu zen, Nazio Batzordeko kide izatearekin batera. Gero, Gipuzkoako zerbitzu-sektoreko arduraduna izan zen, harik eta 1999. urtean Manu Robles-Arangiz Fundazioan lanean hasi zen arte. Azken urteotan, batez ere, gure sindikatuko ordezkari berriak prestatzen aritu da.

-Nola piztu zitzaizun liburu hau idazteko ideia?

-Historialari-ikasketak ditudan aldetik beti izan dut ELAren historia ezagutzeko jakin-mina. Horregatik, hainbat urtetatik hona materiala jasotzen ibili naiz han eta hemen, egunen batean erabilgarria izango zelakoan. Dokumentazio-bilketa hori 2011. urtean areagotu zen, orduan ELAko mendeurren ospatu baitzuen; eta hori dela-eta, erakusketa ibiltaria antolatu zen, besteak beste.

Dokumentazio-lan horren zati bat egin zen, baina liburu hau idazteko azken bultzada Frankismoaren Krimenen kontrako Euskal Herriko Plataformak eman zuen, haiek *zirikatu* gintuzten esanez ulertezina zela ELA bezalako erakunde batek ez izatea ezer memoria historikoari buruz. Argi dago arrazoia zutela. Hala pentsatu zuten sindikatuko Konfederazioan ere, eta liburu hau idazten jarri nintzen. Bazen garaia ELAren historiari behar duen garrantzia emateko.

-Liburuak dokumentazio-lan handia behar izan du. Nola jaso dira dokumentu guztiak?

-Gure sindikatuak dokumentazio asko zuen, baina zatikako testuetan sakabanatua eta ordenatu gabe. Horregatik, orain dela zenbait urte erabaki zen agiritegi hori egokitzea eta txukuntzea, Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz. Docu enpresa espezializatuak beregain hartu zuen lan hori. Lan mardula izan zen, informazioa eta agiriak barreiatu baitzeuden euskal lurraldeetan: Iparralden, Iruñan, Donostian, Tolosan... Material hori guztia sailkatu eta antolatu da. Liburu hau idazteak egin duen ekarpen nagusietako bat ELAren artxibo historikoa antolatzea izan da.

Gainera, liburu osatu ahal izateko, eta gure eskueran ez zeuden informazioak eta materialak eskuratzeko, artxibategi batean baino gehiagotan ikertu behar izan dut: Irargi (Eusko Jaurlaritza), Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia (Areetan), Bizkaiko Foru Aldundiarren Artxiboa eta hainbat udaletako artxiboetan (Irun, Hondarribia, Errenteria, Legazpia, Zumarraga, Beasain, Eibar, Oñati, Bergara...). Esan beharrik ez dago bibliografia-material ugari ere jaso dela, eta askotan ELAren historiaren berriazko liburuak ez badira ere, oso material garrantzitsua izan da, gertakari asko kronologikoki ordenatu ahal izateko, eta testuinguru historikoan kokatu ahal izateko.

-Gerra zibilean eta ondorengo frankismoan zehar ELA kide izateagatik jazarpenera pairatu behar izan zuten gehienak hilda daude dagoneko. Hala ere, bizirik iraun duten azken lekuko testigantzak jaso ahal izan dira liburuan...

-Onartu behar dugu alde horretatik oso berandu ibili garela. Horixe izan da gure okerrik handiena, denbora gehiegi joaten utzi dugula. Horregatik, liburu honen helburuetako bat plataforma izatea da, gai honi buruz ekarpen bat egin nahi duenak egiteko aukera izan dezan. Zorionez, badira bizirik dirautenak, eta haiekin harremanetan jarri gara, elkarrizketatu ditugu, eta nor bere ekarpen materiala egin du. Eta, jakina, pertsona horiek omendu nahi ditugu.

Azken batean liburu honen bidez biziki omendu eta ohoratu nahi ditugu ELAren proiektuari eutsi dioten guztiak. Honen bidez, hala espero dugu behintzat, jende horren izen-abizenak argitaratu ditugu, eta ahanzturatik aterako ditugu. Lagun horiek, kasu askotan, beren bizia eman dute Euskal Herri aske bat eraikitzeko, non gizartearen protagonismoa langileei egokituko zaien, duintasunez eta zuzentasunez bizi diren langileei.

-Zenbat ELA kidek jasan zuten errepresioa?

-Errepresioa hainbat modutan guzatu zen. Batzuk fusilatuak izan ziren, beste batzuk espetxera bidali zituzten, ELA kide batzuei heriotz-zigorra ezarri zieten, hainbat eta hainbat erbesteratu ziren... Gure sindikatuko militante batzuek lanpostua galdu zuten ELA kide izate hutsagatik. Eta sindikatuari berari ondasun guztiak konfiskatu zizkioten.

ELAri dagokionez zenbakiak oso esanguratsuak dira. Gure afiliatu askoren izen-abizenak jaso ahal izan ditut, erahilak, espetxeratuak, deserriratuak izan zirenak... Ikaragarria da matxinatuek zenbat ELA kide fusilatu zuten. Banan-banan jasota daude kasu horiek guztiak, eta 120 lagun inguru dira.

Informazio asko dago, baita ere, Hego Euskal Herri ikhes egin behar izan zuten militantei buruz. ELA kide fitxetan jasotzen zuten mugaz bestaldera zihozten afiliatuei buruzko informazioa. Honelako xehetasunak jasotzen ziren: nondik zetorren, senideak, lanbidea... Guztira, eta iheslariak bakarrik kontuan hartuz, 2.000tik gora fitxa daude.

Ikerlan honi esker jakin ahal izan dut hainbat jenderen ELA-afiliazioaren berri. Adibidez, Ziriako Andonegi, mutrikuarrena. Jende askorentzat ez da ezaguna izango, baina esaten badiegu, *Aitorren Hizkuntz Zaharra*-ren letraren egilea izan zela, orduan bai, abestia denon ezaguna baita. Liburu idazteko informazioa biltzen ari nintzela, jakin nuen Ziriako Gerra Zibilaren garaian atxilotu eta espetxeratu zutela ELA kide izateagatik. Eta Koldo Mitxelena arrazoi bera- gatik espetxeratu zuten Santoñan.

-Liburuak, bestalde, aparteko tresna da historia hobeto ezagutzeko, bai gure sindikatuarena, bai Euskal Herriarena. Alde horretatik zein dira liburuaren irakaspen nagusiak?

-Ikuspuntu historikotik dokumentazio-lanaren bidez betiko kontu ilunak jorratu eta argitu ahal izan dira. Adibidez, hasiera batean abertzaleen artean izan ziren zalantzak, errepublikaren alde ala indar matxinatuen alde jartzekoak. Liburuak argi utzi du ELAren apustua hasieratik errepublikaren aldekoa izan zela. Ezin da ahanzi testuinguru historikoa. Izan ere, orduan erlijioak sekular-ko eragina zuen jendearengan. Esate baterako, askorentzat ulertezina zen

ELA kide ateekin bat egitea errepublikaren alde, gurutzatu katolikoekin batu beharrean. Baina 1936an hori ulertzen ez zuten askok, gero, 1940an, normaltzat hartu zuten CCCPrekin batera borrokatzea Bigarren Mundu Gerran faxismoaren aurka. Argi dago aldi hartan pentsamolde-aldaketa nabarmena gertatu zela.

Garai hartako ikuspegitik ELAko jendeak beldur handiagoa zioten ezkertiarren iraultza bati, eskuindarren estatuko kolpe bati baino. ELA ez zen susmatzen eskuinaren altxamendurik gerta litekeen. Alde horretatik oso adierazgarria da uztailaren 18ko altxamendu faxista gertatu zen unean III. Kongresua prestatzen ari ziren, eta inork ez zion susmo txarrik hartu altxamendu bat gertatzeko aukerari. Adibidez, ELAko orduko zuzendariak konturatuak ziren matxinatuek askoz okerrago tratatzen zituztela abertzaleak, *gorriak* baino; eta teoriarik *gorriak* ziren matxinatuen etsaierik handienak. Hori ulertezina zen ELAko jende askorentzat.

-Errepresioa eta guzti, ELA aurrera aterata da...

-Niretzat deigarria izan da jakitea zein-nolako garrantzia ematen zitzaion ELA kideak deserrian elkarrekin egoteari, elkarrengandik alde ez egiteari. Ahalegin handiak egin ziren batasunari eusteko hain aurka zuten egoera hartan. Datu bitxi bat, nire ustez orain arte ezezaguna eta argitaragabea, erbesteko ELAko Zuzendaritzak pentsatu zuen proposamen bat egitea Frantziako Gobernuari Afrikako iparraldean, zehazkiago Aljerian, euskal kolonia bat finkatzeko.

ELA kide haietako asko eta asko Amerikara joan ziren; batez ere, herrialde hauetara: Mexikora, Venezuelara, Txilera eta Argentinara. Eta herrialde haietan elkarrekin sortu zituzten.

Gainera, memoria historikoaren arloan hutsunerik handienetarikoa bat aztertu eta jorratu nahi izan dut: Gerra Zibilaren amaieratik 60ko hamarkadara doan garaia, hau da, erresistentzia eta klandestinitatearen garaia. Ez dago dokumentazio handirik; aro horri buruz dakigun zati handi bat sindikatutik kanpoko historialarien bitartez jakin dugu.

ELA kide errepresio handia pairatu du, baina aurrera aterata da. Eta hori jende xeheari esker izan da, errepresio frankistaren menpean bizi arren, ELAren proiektua atera nahi zuen jendeari esker. ELA kideak izate hutsagatik errepresio-mota guztiak jasan zituen jende horien izen-abizenak, askotan, ez ditugu ezagutu orain arte. Liburu irakurtzean ELA kide garai hartan zuen garrantziaz eta sendotasunaz jabetuko gara. Ideia bat izateko, ikusi besterik ez dago zenbat ondasun eta jabetza konfiskatu zituen erregimen frankistak, eta zenbat lagun izan ziren jazarriak eta zapalduak.

LABURREAN / BREVES



• Preacuerdo en el Museo Bellas Artes de Bilbao

Pocos minutos antes de cerrar la edición de este *Astekaria* se firmó el preacuerdo logrado en el Museo Bellas Artes de Bilbao. Con este preacuerdo –ratificado por los trabajadores y trabajadoras en asamblea– se pone fin a la huelga indefinida de la plantilla de Manpower Group Solutions, subcontrata encargada de la gestión del Museo Bellas Artes de Bilbao.

Iñaki Oliden, responsable de ELA en el Museo, destaca que es un gran acuerdo fruto de la lucha y movilización de una plantilla que dijo “basta” y se levantó en contra de la precariedad. “El preacuerdo alcanzado contempla la subrogación y la rúbrica del que será el primer convenio de las y los trabajadores de Manpower adscritos al Museo. Un convenio que contemplará, entre otros aspectos positivos: incrementos salariales progresivos que culminarán el 2019 en una retribución anual de 20.500 € para las y los auxiliares de sala, frente a los actuales escasos 10.500 € que vienen percibiendo; el devengo del complemento de antigüedad; sustanciales mejoras sociales; y clausula que evita la aplicación de la reforma laboral...”

• Enpleguan zein lan baldintzetan atzerapausoak eman dira Bizkaiko Aldundiaren lan hitzarmenean

Uztailaren 14an LAB eta CCOO sindikatuek 2016ko lan baldintzak arautuko dituen hitzarmena sinatu zuten Bizkaiko Foru Aldundiarekin. ELAren ustez, 3.000tik gora langileei eragiten dien akordio hau atzerapauso handia da, batez ere enpleguari dagokionez. “Akordio honek babesa ematen dio BFA enplegu publikoa sustatzeari. Aurrekontuetan zuzkiturik dauden 200 plazatik gora hutsik daude, baina ez dira beteko. Ez da zehaztu noiz eta nola gauzatuko den IFASeko Enplegu Publikorako Eskaintza. Soldaten inguruan ere gauza bera, akordio txarra da. Itundutako igoera –%0,7– gure herriko erakunde gehienetan itundutakoa baino txikiagoa da. Beste zati bat –%0,3– zor moduan aitortu da, Bizkaiko Foru Aldundiak orain arte itzuli ez duen zorra handituz –2014-2015 Akordioa–. Beraz, langileekiko dago-

en zorra handitu da, eta gainera kendu diguten hori berreskuratzeko bermerik ez dago”.

ELAren ustez akordio honekin aukera bat galtzen da enplegua sortzeko, badagoena finkatzeko eta azken urteotan kendutako lan-baldintzak berreskuratzeke. “Borrokan jarraituko dugu enplegua sortzeko eta badagoena finkatzeko eta duintzeko; langileen lan-baldintzak hobetuz kalitatezko zerbitzu publikoen alde egingo dugu, horretaz erabat sinetsita bait gauden”.

• Cierra Horno Artagan en Bilbao

Aprovechando que la representación de los trabajadores y trabajadoras y parte de la plantilla se encontraba de vacaciones, la empresa Horno Artagan –popular por sus conocidos *bilbainitos*– se ha declarado en concurso de acreedores voluntario; de este modo el 8 de julio notificó a sus 14 trabajadoras y trabajadores que la empresa cerraba. (Horno Artagan cuenta con tres pastelerías en Bilbao). En principio la dirección anunció que el cierre era por vacaciones, pero la plantilla denuncia que todo apunta a un cierre definitivo.

ELA critica el absoluto estado de indefensión en el que queda una plantilla que ha estado totalmente al margen de esta decisión unilateral de la empresa, y a la que no se le ha ofrecido, siquiera, la opción de continuar con la actividad, dejando bailando la patente de productos tan exclusivos como los famosos *bilbainitos*.

• Greba mugagabeak aurrera jarraitzen du Kaiku Km0-n

Kaiku Km0ko langileek –lehenago Sociedad Distribuidora Alimentaria izenez ezagutzen zen enpresa– greba mugagabe jarraitzen dute uztailaren 5etik. Grebaren helburua prekaritatearen eta zuzendaritzak Aldi Baterako Lanaldi Enpresez egiten duen abusuzko erabileraren aurka borrokatzea da.

Kaiku Km0-k izen bereko produktuak banatzen ditu, eta zuzenean 30 langile ditu, gehi beste 15 bat aldi baterako lan enpresen bidez. Langileek enpresaren jarrera salatu nahi dute; izan ere hamaika ahalegin egiten ari da greba eskubidea urratzeko.



• Osakidetza indemniza con hasta 12.000 euros a cuatro médicos de atención primaria

La OSI-Bidasoa ha reconocido ante diferentes reclamaciones impulsadas por ELA la obligación de abonar el exceso de TISes (exceso de cupo) a cuatro médicos de atención primaria con contrato temporal. El efecto retroactivo de este reconocimiento eleva hasta los 12.000 euros esta cantidad. Los Pediatras y Médicos de Familia que atienden un cupo de pacientes, si sobrepasan la cantidad de 800 en caso de los Pediatras y 1.500 en el caso de los Médicos de Familia, tienen que cobrar 2,05 euros por cada exceso de TISes.

ELA había detectado que en muchos centros de salud, sobre todo a los Médicos de Familia y Pediatras eventuales, Osakidetza no estaba abonando por este complemento por el peso en asistencia, por lo que habíamos iniciado una campaña para reclamar dicho derecho. Varios compañeros/as de la OSI Bidasoa habían realizado la reclamación administrativa, y pocos días antes de terminar los 3 meses de plazo por silencio administrativo, la dirección de la OSI les ha notificado el reconocimiento de derecho y el abono de las cantidades con efecto retroactivo, que son de cuantías importantes, de hasta 12.000 euros.

ELA valora positivamente que Osakidetza haya estimado las reclamaciones realizadas por la plantilla, pero critica que la decisión la hayan tomado cuando han visto que una respuesta desestimatoria iba a terminar en demanda en el juzgado. Este colectivo había realizado en reiteradas ocasiones la reclamación y desde la OSI les contestaban que no les correspondía dicha cantidad “porque eran eventuales”.

• TMB Arraiz, 100 egun greban prekaritatearen kontra

Bizkaiko hiri-hondakinen kudeaketaz arduratzen den TMB Arraizeko langileek protesta ekintza egin zuten uztailaren 12an Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean. Izan ere egun horretan 100 egun bete ziren prekaritatearen aurka eta lan-hitzarmen duin baten alde greba mugagabea hasi zutenetik. Protesta ekintza honekin langileek Foru Aldundiaren jarrera salatu nahi izan zuten, bera baita zerbitzu honen kudeaketaren arduraduna. Langileek ere Pabisa eta Valoriza (Sacyr) enpresen jarrera salatu zuten, euren helburu bakarra langileen kontu dirua irabaztea delako.



www.ela.eus / @ELAsindikatu / ELA-Facebook

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela.eus

Franqueo concertado
nº 08/207